

## LIBURUAK

ANTONIO ZAVALA. - *Jan-edanaren bertsoak*. (2 tomo) 18 x 10,5 zm., 142 eta 147 orr. Auspoa Liburutegia. Tolosa. 1982.

«Jan-edanari buruz, literatura ugaria dago hizkuntza guzietan. Euskaraz ere zerbait badugula, liburu honek erakutsiko digu», hala aitortzen du. A. Zavalak berriki argitaratua duen obraren hitzaurrean. Egia esan, gure literaturarik ezagutzen ez zen garaian ere, gure edanerako grina argi utzi zuen Rabelais berak 1535ean argitaratu zuen *Gargantúa* zeritzan liburuan. Bertan lehenengo agertzen den euskaldunaren ahoan jarri bai zuen: «Laguna, edatera». Janariz berriz, zer esan? J. A. Aboitiz lekeitia-rraren Txantxon pipirri deritzan kanta aski dugu lekukorik.

Gure gizartea ezagutzeko ez ezik gaur egungo gizartea bera lehengoaren erroetatik ikusteak ere merezi du. Zavalak, bi liburukatan bildu ditu jan-edanari buruzko bertsoak, heuren azalak I. Zuloaga pintorearen otorduzko irudiz aurkeztuaz. Liburu hortako bertsoak hiru ezaugarri omen: gaia, jan-edana; egilea, ez-ezaguna; eta Bidasoaz hegoaldekoak izatea. Bada bertan jan-edanak kantatzen jarriko duena ez ezik goseak kantari jarri zuenik ere. Baina baite ardozale eta ardoaren aurkako.

Bertso horietan dira L. L. Bonaparte printzeak lehengo mendean bilduak edo, baita ere, Fr. Michel-en *Le pays basque* liburuan argitaratuak.

Zenbait bertsok izan zuten eragina, biltzaile desberdinak tokian tokiz hain lurralde zabaletan jasoak izatea dugu adibide. Hortik ikus ditzakegu oraindik zenbat lan dugun egiteko, bai

bilketaz eta bai bilduak behar den ordenamenduz jartzen, kanta edo bertso bakoitzak bere jabetasuna edo nondikakoa izan dezan.

Baina, biltzaileak izenburua hala eman badio ere, ez da guztia jan-edan kontua. Argi ikus daiteke lehen liburuaren 100. orrialdetik 112.era bitartean, hiru bertso sailetan, kolore marroïdunik ere badela. Txokolatea kolorez, guztiz bestelakoak izanik ere. Bilketan eta ohargintzen arduratu denari inolazko gomendiorik ematekotan, lehenagoko beste Jesulagun bi haien gisara, bertso marroïdunen bilketa bat egitea, Aita Vinuesa-k egin zuen *Co-prógenas*, Aita Coloma-ren hitzaurrez argitaratuko zenaren erara.

103. orrialdean Eibarren bildutakotzat dakarrena oso ezaguna zitzailgun gure haurtzaroan, baina tartean bazuen euskari-txo edo errepika jakin bat ere, era hontara:

*Kaka zuretako ta  
kaka neretako;  
haixen da gauza ederra  
mundu guztian dako.*

Egia esan, jan-edanak berez dakar ondoreko marroïtasuna; eta hori omen da osasuna.

Bilduma horietan, inoiz, aintzinatasunaz gainera tokian tokiko aldakuntzaz agertzen ditu, «Mahatsaren zaiñetik dator» di-relakoak bezala. Gainera, Azkue eta A. Donostiaren bilketetakoak baino lehenagoko lekukotasunak ere ematen ditu. Adibidez, Xabier Munibek 1764an aurkeztu zuen *El borracho burlado* delakoan agertzen diren pare bat bertso ere bai. Behar bada, biltzaileak ongi dion bezala, G. Munibe berak herrikantetatik hartuak izan zitezkean.

Ahatea eta katuaren bertso zelebreak irakurtzean Eibarko Dorrepeko asto janarenak zetozten nere burura (*Karmel*-en argitaratu ziren 1975eko 4. zenb.). Jatunak jataile direnean; zer ez jan?

Edarien alde edo zein kontra, badira liburuotan hoietarikoak ere, eta ez guti. Behar bada edaria da gure herriaren izurriterik handiena, eta honen kontra Eusko Jaurlaritzak hartu dituen erabakiak ez daitezela ondoregabe gelditu, zeren herri batentzat ez baita holako zigorrik.

Oso polita da bigarren tomoko 47. orrialdean datorren «Ar-daotxo baltza, zer dakak hik?»; baina beste kanta bat zen guretzat 52. orrialdean Elgoibarren jasotakotzat datorrena. Bigarren honek, hor bertan ikusten den bezala, aldaketa asko ditu. Bada hor aipatzen ez denik ere. Ikus Manuel Lekuonak Elgetan jaso zuen hura «Cantares populares» haietan (*Anuario de Eusko-Folklore*, X, 1930, 49 eta 87. orrialdeetan). Guk Eibarren ikasia ordea, era hontara zen:

*Bart arratsian beranduan  
nekez etxera jo genduan;  
bixamonian sutonduan  
panparrerria bagenduan.  
Duan, duan, duan,  
panparrerria bagenduan. Ja-jai!  
Duan, duan, duan,  
panparrerria bagenduan.*

Ohar jakingarri askorekin eta doinu pentagramaz aberats datoz bi liburuok. Gaur egungo bertsolariak ere badute ikasbiderik horietatik. Baina, edariarekin kontuz ibili beharra dugu euskaldunok, maiz aspaldiko bertsoa oroituz:

*Lagun: kalte haundiak  
ditu edariak,  
ordenaren kontrako  
astakeriak;  
sudurra luzatu ta  
gorritu begiak,  
errezelo txarrian  
tente belarriak,  
neketan gerriak,  
juntura elbarriak,  
beti egarriak;  
hoik dira ibillera  
negargarriak.*

JUAN SAN MARTIN